



INAUTERI DOINUAK, FESTAREN ATARIKOA

Bihar Tolosako Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da Leidorren, eta igandean Txistulari eta Musika Banda >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-02-12

VIIURTEA 1.627.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E. EZEIZA

JUAN BAUTISTA ARANZABE FESTA BATZORDEKO KIDEA

«Tolosako Inauteriak parte hartzeko dira, ez ikusteko»

TOLOSA Amarozko Auzo Etxe Elkartean mintzatuko da gaur tolosarra Inauterien inguruan, 20:00etan; «txikitatik» maite ditu Inauteriak 3

Udalak ELAk eginiko akusazioak gezurtatu ditu

VILLABONA Santiago Zaharren egoitzaren kudeaketaren harira piztu da eztabaida 5



E. EZEIZA

INAKI IRAZABALBEITIA ETA ANTTON AGIRREZABALA ARALAR

«Herri honen aldaketa ezker abertzale sendo baten bidetik etorriko da»

TOLOSA Gipuzkoako Aralarren zerrendagaiek «langileen ordezkari» izan nahi dute 2



Otsailak 14 eta 21

Irekita, Sarrera doan, Pub Muxu
DJ Julen

Otsailak 28

SU TA GAR EN KONTZERTU HANDIA

- SALMENTA PUNTUAK:
- Zunbeltz musika denda (Tolosa)
 - Peritza taberna (Leitza)
 - Leku ona taberna (Etxarri -Aranatz)
 - Ilargi taberna (Lekunberri)
 - tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI

E **Elkarrizketa****INAKI IRAZABALBEITIA ETA ANTTON AGIRREZABALA** › Gipuzkoako Aralarco zerrendagaiak

Politika » Aralar alderdiak «langileen ordezkari» izan nahi du Eusko Legebiltzarrean, krisiaren kaltetu bakarrak beraiek eta gizarte talde baztertuak izan ez daitezzen.

ESTI EZEIZA

Martxoaren Ieko hauteskundee-tarako Aralar alderdiak eskualdeko bi herritar ditu Gipuzkoako zerrendan: Inaki Irazabalbeitia eta Antton Agirrezabala Txepe. Kanpainan sartu garen honetan, beraien ideiak, egitasmoak eta helburuak plazaratu dituzte.

Zeintzuk dira Aralar alderdiaren ardatzak?

Tolosaldearen ikuspegitik, lan ildo garrantzitsua ekonomia izango da, eta hau hiritan banatuko genuke. Alde batetik, krisia nola gainditu eta honen ondorioei nola aurre egin. Baina, beti ere, ezkerreko ikuspegi sozial batetik. Langileekin eta baita baztertuta dauden taldeekin hitz egingo genuke, nola gainditu erabakitzeko eta baita, adosteko zein oinarri jarri behar ditugun, berriro hau ez gertatzeko.

Eskualde mailan ekonomia indartzea duzue xede, beraz?

Tolosaldean garrantzi handia duen alorra industriarena da. Honek bere pisua galdu du. Nabarmena denez, krisiak gogor astindu du eskualdea, eta etorkizunera begira, industria lurrak sortzea beharrezko ikusten dugu. Hala ere, orain dauden proposamenekin ez dugu ikusten hori bermatua dagoenik. Adunako ibarra dago aukeren artean, Villabona eta Andoain artean dagoena, baina horiek dira memento honetan Tolosaldean dauden nekazal lurrik onenetako batzuk. Honenbestez, guretat baserria indartzea garrantzitsua da, eta horregatik, gure ustez beste azterketa bat egin beharra dago. Nekazal lurrak mantentzeko baina aldiz berean, industria indartzeko. Baserritarra eta lehen sektorea beste beharra daukagu eskualdean, gazteak mundu honetara hurbil daitezzen. Gure ustetan, jaten duguna bertan sortzea hobeto baita. Oreak bat aurkitu beharra dago bi sektore hauen artean.

Ekonomia izango da beraz, hauteskunde hauek bideratuko dituen ardatza.

Neurri handi batean bai. Egunero entzuten ari garen gaiak dira, EREarenak, kaleraketak... Eguneroko poltsikoari eragiten dioten gauzak dira horiek, eta jendearen kezka pizten dutenak.

Zer egin behar da krisia gainditzeko?

Alde batetik ekoizpena bultzatuko dituen sektoreetara bideratu behar du dirua Gobernuak, eta ez bankuetara edo beraien arazoak kon-



Irudian, Inaki Irazabalbeitia eta Antton Agirrezabala Txepe, Aralar alderdiko ordezkariak. E. EZEIZA

«Ezker abertzale sendo baten bidetik etorriko da herri honetara aldaketa»

pontzeko erabili. Lanpostuak sortu behar dira zuzenean. Bestetik, krisiak ez dio langileari bakarrik eragin behar. Izan ere, EREa askotan kudeaketa txar bat ezkutatzeko erabiltzen da. Azkenik, etorkizunean, garapenean inbertitu behar da, baina zentzuz, Euskal Herria baliabide naturalen nahiz lehengaietan ez baita aberatsa. Hori dela eta, aurrera egin nahi badu, balio erantsi handiko ekoizpen industrialetan inbertitu behar du. Garbi daukaguna da, krisiak ez diela eragin behar soilik langileei eta bazterketa soziala pairatzen dutenei. Krisi honek balio beharko luke beste sistema ekonomiko eta sozial bat asmatzen hasteko.

Aurreko legealdiaren zein balorazio egiten duzue?

Tolosaldean zenbait arazo ikusten ditugu. Alde batetik, zoru industriaren gabezia horretan, pausogutxi eman dira. AHTri dagokionez ere, duela lau urte genuen informazioarekin jarraitzen dugu, oraindik ez dakigu nondik igaroko den zehazki eta zein eragin izango dituen. Etxebizitza politikari dagokionean, Voith-Gorostidi proiektua aurrera atera da, baina hori ikusi da, etxebizitza tasatuak egitearena ez dela sistema egokiena. Horregatik, beste politika bat eman beharra dago. Alde Zaharra

ere hustutzen ari da, etxe huts ugari daude, jendea hauetatik alde egiten ari baita, eta honi ere ez zaio irtenbiderik ematen. Alokairu soziala bultzatu beharko litzateke, hau da bidea. Ematen ari den hirigintza politikari esker, hau Udalarantzat diru iturri handi bilakatu da, eta horregatik ez dute aldatu nahi.

Aintzane Ezenarro da Aralarco zerrendaburua, zer du berak eskaintzeko?

Indar izugarria eta esperientzia, politika alorrean nahiz gizarte mugimenduetan. Aldi berean, freskotasuna ere emango du, politikan urte gutxi baitaramatza. Azkenik, aipagarria da emakumea dela. Horrek beste ikuspegi bat ematen dio gobernatzeko moduari. Azken lau urteetan Parlamentuan egin duen lanean hori gutzia erakutsi du. Gure balorazioa oso ona da. Gainera, memento honetan, karisma gehien duen zerrendaburua dela esan dezakegu.

Aurrekanpainan gaude oraindik, baina, zein da egiten duzun balorazioa?

Kanpainak oso mediatikoak dira eta jendeak hor zaudela ikusteko balio dute. Batez ere, txiki kasuan, gainerantzean, jendea ez da ohartzen hor zaudela.

Bialderdien arteko lehia balitz be-**zala aurkezten ari dira asko eta asko.**

Hori da beraiei interesatzen zaiena. Zorionez, herrialde hau plurala da eta ikuspegi asko daude. Hori ona da gauzak aurrera ateratzeko. Gauzak eztabaidatzea ona da eta iritziz ezberdinak izatea aberasgarria da. Denera zazpi korronte politiko gaude Gipuzkoan, eta hori garrantzitsua da. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan, gobernatu ahal izateko, beste batekin elkartu beharra daukazu, bakarrik ezin baita, eta hori ere gure onurarako da.

Eta Aralar, zeinekin egogongo litzateke prest Gobernuak osatzeko?

Orain ezingo genuke esan. Dena den, argi dago, Aralarrek zaila izango luke elagobernuan PPrekin egotea. Baina egun, tokiaren eta Udaltzaren arabera alderdi ezberdinekin dago agintean. Programa, errealitatea eta unea hartu beharra dago kontuan, orain ezingo genuke esan, zeinekin bai, eta zeinekin ez. Garbi dago hala ere, EAEn ez dagoela Herrialde Katalanetako Gobernu bat bezalako osatzeko aukerarik. Batik bat, hemengo PSE-EEk ez duelako zerikusirik Herrialde Katalanetakorekin. Garbi esateko, memento honetan aurkezten den dikotomia,

hau da, PSE-EE EAJren aldaketa dela. Hau ez da horrela, alternantzia da, eta ez aldaketa. Gogoratu beharra dago, PSE-EE alderdia hamar urtetik gora egon dela Gobernuan EAJrekin. Benetako aldaketa, politikan azken lau urteetan eman da. Horren adibide dira Arrasate eta Azpeitia. Politika egi-

Krisiak gogor astindu du eskualdea; etorkizunera begira, industria lurrak sortzea beharrezkoa da**Herri honetako sentsibilitate politikoguztiak izan behar dute ordezkatuak****Memento honetan karisma gehien zerrendaburua da Aintzane Ezenarro**

teko beste modu bat zegoen bi hauetan, baina ETAk dena zapuztu du. Ezker abertzale sendo baten bidetik etorriko da herri honetara aldaketa.

Herrigaldeketa mintzagai izan da hilabete askoan, noiz etorriko da hau?

Hauteskunde emaitzen arabera ikusiko da egingo den edo ez. Galdeketa alde gauden indarrak nagusitzen bagara hurrengo legeingintzaldian, egingo da, baina beste la ez.

Hauteskunde hauetan, herritar ugari ezin izango dira ordezkatuak izan.


Herri honetako sentsibilitate politikoguztiak izan behar dute ordezkatuak izateko aukera, eta beraien mezuak mahai gainean jarri ahal izateko. PSE-EEren interes politikoa ondo diru ilegalizazio hauek.

Zein uste duzue dela bidea, Euskal Herriak bizi duen gatazka egotera gainditzeko?

Alde batetik, pausoak eman behar dira, eta ETAk armak utzi behar ditu. Bestetik, elkarrizketa ezinbestekoa da, eta normalizazioaren bidean joan behar dugu. Eta, nola ez, Gobernuak ere bere aldetik jarri beharra dauka, Alderdien Legea alde batera utzita. Une honetan oztopoa da ezker abertzale osoaren batasun eza, hori ezinbestekoa baita gatazka gainditzeko.

Abiadura Handiko Trena, gero eta gertuago dagoen errealitatea da.

Aralarrek garbi dauka lotura eraginkor eta azkarrak behar dituela Europarekin eta penintsularekin. Baina argi daukagu Euskal Y-ak ez diola erantzuten Euskal Herriak dituen beharrei. Lehenetsi da kanpoko loturak hobetzearena, baina gure ustez barnekoek lehenetasun handiagoa dute. Garraio publikoaren aldeko apustua egingen dugu, baina barneko sarea indartu behar da lehendabizi.



ESTIEZEZA

«Tolosako Inauteriak ez dira ikusteko, parte hartzeko baizik»

JAUN BAUTISTA ARANZABE Festa Batzordeko kidea

Inauteriak » Inauterietaz mintzatuko da gaur 20:00etan Juan Bautista Aranzabe, Amarozko Auzo Etxe elkartearen.

ESTIEZEZA

Juan Bautista Aranzabe *Matek* bizarra darama azken asteetan, eta bere inguruko askok dakiten bezala, honek adierazten du Inauteriak ia gainean direla. Txikitatik da inauterizale, eta dokumentazio ugari bildu du jai hauen inguruan. Gaur, Tolosako festa garrantzitsuenen inguruan mintzatuko da Amarozko Auzo Etxe elkartearen, 20:00etatik aurrera. Bestalde, aurreko urteetako argazkiak bildu ditu, eta hauek ere ikusgai izango dira gautik aurrera.

Inauterietaz bai, baina zer da bertan azalduko duzuna?

Txostentxo bat prestatuta daukat, eta bertan agertzen ditut esaterako, gainontzeko hiri eta herrietan ospatzen diren Inauteriak. Bestetik, Tolosako historia kontatzen dut, etorkizunera begira ematen ari diren aldaketak, Tolosako Inauterien errepertorioa...

Inauteriekiko zaletasun hori nondik dator kizu?

Txikitatik bizi izan ditut. Jaiotzetik naiz inauterizale eta heriotzera arte izango naiz. Hala ere, nire eredu nagusia Juanito Lope izan zen. Bere alboan jaio nintzen eta baita bizi ere. Inauterietarako prestatzen aritzen zenetan, bere inguruan ibiltzen nintzen ni.

Urte hauetan Inauteriak asko aldatu al dira?

Bai asko. Inauterietan galdu den ezaugarrietako bat umorea da. Nahiz eta karrozen inguruan jende asko bildu, hauek dantza emaldiak prestatzen dituzte, baina Tolosako Inauteriak ez da dantza egitea, umorea ateratzea baizik. Badakit hau ez dela erraza, baina berreskuratu beharra dago. Hori baita gureen bereizgarria. Aisi taldeetako haurrak ateratzen direnaren ere dantza besterik ez dute egiten, eta ez da hori bakarrik. Hauek ez dira ari ikasten, umorea lantzen.

Lehen adina bizitzen al dituzte jendeak Inauteriak?

Gehiago, eta horren arrazoietako bat da, emakumeak gehiago ateratzen direla orain. Dena den, emakume eta gizonen artean ezberdintasun bat dago, emakumeak apain ateratzen saiatzen direla. Bestalde, nabarmendu beharra dago, Tolosako Inauteriak ez direla ikusteko, parte hartzeko baizik. Bestalde, txarangen atzetik oso jende gutxi ibiltzen da orain.

Noiz hasten zarete Inauteriak prestatzen?

Irailen egin genuen Festa Batzordearen lehen bilera. Nik 26 urte daramatzat hor lanean. Batzorde irekia da, baina jende gutxi animatzen da parte hartzera. Baina beharrezkoa da, Udalaren eta elkartearen arteko harreman hori.

Tolosar guztiak inauterizale izan behar a al dute?

Bai, prestatutako txostenean diodan bezala, bai. Honela azaltzen dut: tolosar haurrak jaiotzean, lehen aldiz bularra hartzerako garaian, Inauterietako doinuak entzuten dituzte.

Inauterien inguruko museo ere aipatzen duzu.

Hori da nire helburuetako bat, edo gauzatzea gustatuko litzaidakena gauza bat. Txostxongiolen inguruko museo bat sortzea oso ondo dago, baina Inauteriak ere Tolosaren bereizgarri dira, eta komeni litzateke horrelako proiektu bat. Izan ere, agiri, moztorro eta argazki ugari galitzen ari dira, eta hori pena da, nonbait gorde beharko lirateke. Izango lukeen kokapenez ere mintzatuko naiz.

Zeintzuk dira Inauterietan galdu ezin diren ekitaldiak?

Bat behintzat, diana da. Hau da Inauteriak iragartzen dituen ekitaldia. Gogoratzen naiz, behin, 23 lagun atera ginela, eta gaur egun, ehunka lagun ateratzen dira. Bestetik, kalejirak, hauek ere oso politak dira.

Eta galdu den ohituraren-bat berreskuratuko al zenuke?

Pattar zezenaren ostein Beotibar pilotalekuan egiten zen dantzaldia. Zezen-plazan pasatako hotzaren ostein hara joaten ginen dantzara.



Urtez urte moztorro ezberdina prestatzen du Aranzabek; orain, argazkiak ikusgai dira Amarozko Auzo Etxean. HITZA

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilera, hasierako onepena eman zion, zenbait baldintzarekin, BISTA ALAI SAK susatzen duen, E-48 "Tolosana" eremua Urbanizatzeako Jarduketara Programari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 156.3 artikulua araberak, espedientea jendauraren 20 egun egingo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Espedientea aztergai egingo da aipameneko epearen barruan, Tolosako Udaleko Hirigintzako Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioen idatziak Udaltzeko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Alegaziorik aurkezten ez bada, UJP behin betiko izaeraz onartuko da Alkatetza Dekretuaren bitartez.

Tolosan, 2009ko otsailaren 9an.

ALKATEA

Laburrak**Odola emateko aukera, bihar LH Institutuan**

ODOL-ATERATZEA ● Tolosako Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan odol emate ekitaldia egingo dutela jakinarazi dute. Ekimen hau urtero antolatzen dute ikastetxe honetan. Hain zuzen ere, bihar izango da, 10:00etan hasita, eta 11:30era bitarte izango da odola emateko aukera. Ikastetxeko arduradunek gazteak, batez ere, gonbidatzen edo animatzen dituzte ekimen honetan parte har dezaten.

Txapin Festa antolatzeko bilera, gaur, Kultur Etxean

AISA ● Iazko Txapin Festak izandako «erantzun ona ikusita» Tolosako gazte talde batek aurten ere antolatzea erabaki du. Oraindik ere ez dute data zehaztu, baina maiatzean izango da. Helburua, «jai alternatiboa izatea, autogestionatua eta gazteek eurentzako antolatutakoa» izango da. Hala, ekarpenak jaso eta egitaraua «guztion artean adosteko», herriko gazteak deitu dituzte gaur, Kultur Etxean, 19:30ean, egingo duten bilerara.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrerara Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 180 119 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburua auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

● Autobusak eta autobusen zerbitzuak bereak
● Hainbat linea eta zerbitzuak dituzte

● Informazio, biletak, iturriak, argazkiak...

Mundatx kalea, 34 / Tel.: 943 26 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA

Puntu kontakturik: autobusak@diezautobusak.net



Musika Eskolako kideak Kalderero kontzertuaren une batean. HITZA

Inauterietako doinuak hasiko dira zabaltzen asteburutik aurrera

Musika » Bihar Musika Eskolako emanaldia izango da Leidorren, eta igandean Txistulari eta Musika Banda ariko dira.

ERREDAKZIOA

Geroz eta gertuago daude Inauteriak, eta hori nabari da giroan, jendea prestaketetan etengabe ari baita. Inauteriak hasi aurretik, gainera, aukera dugu asteburu honetan bertan ohiko doinuekin giroa hasteko, izan ere, bihar Musika Eskolako emanaldia izango da, eta igandean, berriz, Musika Banda eta Txistulari Banda ariko dira.

Musika Eskolako Kalderero

kontzertua, bihar izango da Leidor aretoan, 19:30ean, doan. Hamaseigarren aldian da Musika Eskolako Ikasleen Bandak eta Abesbatzak kontzertu hau eskaintzen duela jarrera. Orain arte, Musika Eskolako aretoan eskaini dute, baina, «ikusirik urtero jendez gainezka egoten dela» aurten, Leidor aretoan egite erabaki dute. «Guraso eta entzuleentzako oso kontzertu maitea da eta espero dugu aurten nahiz eta lekuz aldatu beti bezalako arrakasta izatea», diote Musika Eskolakoek.

San Blas, Batasuna, Tolosako kasinoa, Aupa Gure Txokoa, Kalderero konpartsa, Hungariar kanta, Kalderero eta hungariarrak lanean, Kalderero hungariarren korua, Urdina Txiki eta Diana izango dira

entzungo diren piezak, elkarreatakoak, kaldereroenak eta Inauterietakoak, beraz.

Kabi Alai eta Aiz-Orratz elkarrean doinuak

Bestalde, igandean, Berdura plazan Txistulari eta Musika Bandaren ohiko saioa izango da 12:15ean. Aurten, Kabi Alai eta Aiz-Orratz elkarrean doinuak ere izango dira entzungai, 75 urte betetzen baituzte. Gainera, bi elkarreatako hainbat kidek abestuko dute.

80. hamarkadan hasi ziren Inauterietako kontzertu honekin. Txistulariak hasiko dira lehendabizi, eta ondoren Musika Bandak txanda etorriko da. Ordu eta erdiz Inauteri doinuak eskainiko dituzte.

Biurrun EAeko Auzitegi Nagusiko presidente izateko aurkeztu da

ERREDAKZIOA

Aurki egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea hautatzeko bozak, eta Garbifre Biurrun epaileak jakinarazi du bera aurkeztu egingo dela auzitegi hartako lehendakari izateko. Tolosarra Demokratizarako Epaileak taldeko kidea da.

Gaur egun Fernando Ruiz Piñeiro da EAeko Auzitegi Nagusiko presidentea, eta Ibarretxe auzia bukatu berria dela eta kritika gogorak jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzatik, EAJtik eta E.Btik. Ruiz Piñeiro beraz, hasiera batean, Juan Jose

Ibarretxe Jaurlaritzako lehendakaria, Patxi Lopez eta Rodolfo Ares PSE-EEko idazkari nagusia eta Antolaketa idazkaria, eta Arnaldo Otegi, Fernando Barrena, Rufi Etxeberria, Juan Joxe Petrikorena eta Olatz Dañobeitia Bata-suneko zuzendaritzakideak epaitzekoa —Nekane Bolado eta Antonio Garcia magistratuekin batera—, baina, auzipetuen defentsen, akusazioaren eta Espainiako Ministeritza Fiskaltzaren errefusatzeez ondorioz, ardura horretatik kendu egin zituen auzitegi hartako 77. salak, epaiketan «inpartzialak» izan zitezkeelako.

E Erantzunak info

■ **Peru Atxaga.** «EAeko auzitegi nagusia espainiar botere judizialaren zati bat besterik ez da. Zer esan nahi du horrek? Guztiok dugu espainiar botere judiziala PSO-Eren gobernuak sistematikoki erabiltzen duela Euskal Herritarren (independentisten) kontra jotzeko eta zentzu honetan vaskongadetakoa auzitegiak beste tresna bat besterik ez dira. Erreprezio judizial basatia da azken urte hauetan jasaten ari garena...»

Villabonako Udalak ELA sindikatuaren adierazpenak gezurtatu egin ditu

Villabona » «Santiago Zaharren egoitzaren kudeaketaz enpresa berri bat arduratzen da, eta ez Udaletxea».

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak Santiago Zaharren Egoitzaren inguruan adierazpenak egin nahi izan ditu, «esan direnak gezurrak baitira, batez ere ELA sindikatuak adierazi dituenak». Honako zen egunkari batek zekarren titularrak: Villabonako Udaletxeak Santiago egoitzako adinduen atentzioa gutxitu egin du». Honen aurrean Villabonako Udalak erantzuna ematea erabaki du, izan ere, herrian Maixabel Arrieta alkatearen aurkako kartelak ere azaldu dira.

ELA sindikatuak egoitzan 16 langile zeudela zioen, horietako 15 kontrato indefinituarekin eta beste bat obra kontratuarekin. Guztira 22.609 ordu lanean eta baldintza teknikoan pleguak zerbitzu hau 19.448 ordura jaitzi duela esan du. «Hori pleguetan ikus daiteke». ELAren arabera, «kontraesan bat dago: alde batetik esaten du pertsona guztiak subrogatu egin behar direla (16 laguntzaile besteak beste), eta koadro batean 14 langile jartzen zuten».

Bitartean, kaleratuak izan behar ziren bi langileen inguruan, ELA sindikatuak jakitera eman du herenegun 15. langilea lanean hasi zela eta bestea, ordezkapen lanean ariko dela behar denetan, orain arte ibili den bezala.

«Helburua Udalaren aurka egitea da»

Villabonako Udalak ELA sindikatuak eta bertako langile batzordeak azken egunetan adierazitako gezurren aurrean mintzatu da. Santiago Zaharren egoitzaren eraikinean «Villabonako alkatearen aurkako kartel eta mezu iraingarriak agertu dira. Kartelak ELA sindikatuak eta bertako langileek sinatuak izan dira». Honen aurrean Villabonako Udalak «goitik behara gezurtatu behar ditu bertan



Santiago egoitzan iaizo langile kopuru bera ariko da berriz: 15 langile eta bat ordezkapenak egiteko. I. GARCIA

eman diren informazio okerrak. Modu berean egunkari batek idatzi hori bera jaso du bere kronika lokalean, Udalarekin inolako kontrasterik egin gabe». Udalaren arabera, informazio «erabat okerra eta gezurretan oinarritua».

Helburua garbia dela dio Udalak: «Udalaren eta Maixabel Arrieta alkatearen aurka egitea, horretarako gezurra erabiliz. Datu argigarri batzuk nahikoa izango dira argitzeko benetan informazio horiek eta kartel horiek itsatsi dituzten pertsonak gezurretan ari direla ondorioztatzeko».

«Udalaren lehentasunen artean beti egon dira eta egongo dira herriko adinduek eta zentzu horretan Udalak prestatzen dituen aurrekontuetan zenbat diru jartzen den zeregin horretarako ikustea nahikoa da». Argi dute bere adinduek ahazten dituen herriak ez duela etorkizunik.

Santiago egoitzako kudeaketaren inguruan ere mintzatu dira: «2008a bitartean Suman enpresa izan zen Udalak esleitutako zerbitzua kontratu baten bidez bertako zerbitzuen arduraduna». Administrazio kontratuen legea jarraituz, zerbitzuen kudeaketa berria lizitazioa ateratu zuen Udalak 2008an, «plegutuan zerbitzuaren xehetasun guztiak adieraziz». Eranskin bezala ezarri zen (web-

gunean ere ikus dezakezue) egoitzako lanpostuen zerranda, «hau da, esleipendun enpresak bereganatu beharko zituen langileen zerranda. Bertan egoitzako langile guztiak agertzen dira, bat bera ere ez da falta».

Kontratazioa, enpresaren lana

Kontratazio prozedura amaitu ondoren, Residencia Geriatrica Catalunya 2 izan zen zerbitzuen esleipenduna eta 2009ko urtarrilean hasi da egoitzan lanean enpresa berria. «Kontratazio berri honen esleipena dela eta, 2008arekin alderatuta %7,56 igo da egoitzako zerbitzuen fakturazioa. Hau da, Residencia Geriatrica Catalunya 2 enpresak, aurreko enpresak baino %7,56 gehiago fakturatu du urtean. Noski, Udalak ordaintzen ditu faktura horiek».

«Nola liteke Udalak esleipen berri honekin enpresa berriari 2008 urtean baino %7,56 gehiago ordaindu zerbitzu berdinagatik eta langileen ordu kopurua jaisteko eskatzea?». Erantzuna hau da: «Ez delako egia Udalak langileen orduak jaisteko eskatu duela. Udalak egoitzako zerbitzuen kalitatea bermatu nahi izan du beti langilegoaren ordu kopurua mantenduz».

Langileen kontratazioa «enpresa horren zeregina da, ez Udalare-

na, bestela zergatik ematen dio Udalak dirua?»

Bestalde, 2009an Udalak Zaharren egoitzan obra oso garrantzitsua bat burutuko du, «bertako egoitzaren bizi kalitatea gure kezka delako». 1.300.000 euroko dotazioa izango du: «Horren aipamenik batere ez».

Beraz, «non dago hemen Villabonako Udalak zerbitzuaren kalitatea jaitzi egin duela? Zertan oinarritzen dira?». Datu hauekin «ELA eta bertako langile batzordea gezurretan ari direla esan dezakegu».

Bukatzeko, «zer oinarri dauka Maixabel, despidorik ez! esateak, argi baldin badakite langileen kontratazioa eurek kontratatzen dituen enpresaren ardura dela eta ez Udalarena?», diote Udaletik.

Villabonako Udalak, Maixabel Arrieta buru, «lanean jarraituko du Villabonako biztanleen bizi kalitatea hobetzen, hori egiteko konpromisoa eman ziguten herritarrek eta horretan ari gara oneoro. Batzuk, aldi, gezurra oinarri eta manipulazio lan ardatz gisa, beste zeregin batzuetan ari diren bitartean».

Villabonako Udalak honi buruzko informazio guztia kontratatzeiko aukera ematen die herritar guztiak. Horretarako udaletxera joan daiteke.

Laburrak

VI. Berria Txapelketako arerioa, Txumulutxueta

AMEZKETA ● Amezetako Zazpilturri pilotariaren eskolako pilotariak VI. Berria Txapelketan ariko da. Dagoeneko badakite zeinen aurka aritu beharko diren: Txumulutxueta, hain zuzen. Danok Lagunak kanpoan utzi zuen eskola bizkaitarrak, eta amezketarren aurka datorren astean jokatu beharko dute. Dirudenez, indartsu dago Bizkaiko pilota elkarteak.

Intxurre, sailkapeneko azken postukoaren aurka

ALEGIA ● Joan den larunbatean Intxurre Kostakasen kontra jokatu zuen etxean eta 1-3 galdu zuen, futbol zelaia euripean zegoela. Datorrena etzi jokatu dute, Alegian ere eta 16:00etan hasita. Oraingo arerioa Axular Lugaritz izango da, sailkapeneko azken postuan dagoen taldea, hain zuzen. Alegiak 7. postuan daude 6 punturekin eta etzikoak irabaztea espero dute. Memento honetan lidergoa Gure Txokoak dauka, 12 punturekin. As-teburu honetako jardunaldia igogera faseko zazpigarrena izango da.

Elordi-Herrigintzak bi partida etxean izango ditu

IKAZTEGIETA ● Datorren igandean Ikaztegieta pilotalekuan 11:30ean hasita, Elordi-Herrigintza pilota eskola binakako seniorren mailako bi partida jokatu ditu. Oraingoan, arerioak Eple eta Gazteleku izango dira.

Datorren astean bi batzorde bilera izango dira

AMEZKETA ● Astelehenean hirigintza-obretarako batzordea eta kontuen batzordea izango da, udaletxean 20:30ean hasita. Bertan, besteak beste, Telefonicaren eskaeraz ariko dira. Bestetik, astearrean, hilak 17, kultura, ongizate eta ingurumena batzordea izango da 20:30ean, udaletxean ere. Udaleko lokalenean eskaeraz hitz egingo dute, Korrika 2009az eta UEMAz, jubilatuen programa zehazten jango dira eta San Martingo proiektuaz ere ariko dira. Bilerak irekiak dira eta herritar guztiak daude gonbidatuta.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare bat du

irabazlea:

o Agustin Amiano Gurrutxaga (Altzo)

Sarrerak Tolosako HITZAKo bulegoan dituzu.

BRUESA GBC
Iurbentia Bilbao Basket

IGANDEA

OTSAILAK **15-12:30**

ILLUNBE



harpidedunentzat
TXOKOAK hitza

Ezker hormako hirugarren jardunaldiko partidak, etzi

Anoeta » Ezker hormako II. Emakumea Pilotari Irekiaren partidak izango dira Ibarren; Su-Berri taldekoak ere ariko dira.

ERREDAKZIOA

Pasa den urtarrilaren 31n jarri zen abian Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatzen duen ezker hormako II. Emakumea Pilotari Irekia.

Eguraldia dela eta, hala ere, Usurbileko Aginagako pilotalekuan jokatzekoak ziren partidak bertan behera geratu ziren, izan ere aurreko asteburuko elurra medio jokalaririk nafarrak eta arabarrak ez ziren pilotalekura iritsi.

Bigarren jardunaldiko partidak batzuk, hala ere, jokatu zituzten Anoetan pasa den asteburuan. Bertan Diez-Okariz, Arteaga-Aburuza, Agirre-S. Aristorena eta Irazustabarrena-Ugalde atera zituzten garaile.

Esan bezala, Aginagan ere jokatzekoak ziren, baina ezin izan zu-

ten eta oraindik ez dute zehaztu noiz jokatu diren atzeratutako partidak hauek.

Hirugarren jardunaldia

Hirugarren neurketak aste honetan ari dira jokatzeko. Etzi Aginagan izango dira 16:00etatik aurrera eta Ibarren ere izango dira partidak 16:30ean.

Belabieta kiroldegian lau partidak jokatu dituzte; Tapia-Mendizabal Etxarri-Maite Urtaisunek kontra; M. Zabala-Urbieta Redon-

do-Errastiren aurka; Lizeaga-Perez eta Indurain-Otegi; eta Garmendia-Garayalde Y. Aristorena-Continen aurka. Azpimarratzeko da Ibarrenko partidetan Su-Berriko taldekoak ere badirela; Garmendia-Garayalde, hain justu, eta Nafarroako Aristorena eta Continen aurka ariko direlarik.

Aginagan Anoetako Su-Berri taldeko kide bi ere ariko dira: Ane Arteaga eta Maite Aburuza. Herriko Pagona-Otxotorenaren aurka lehiatuko dira.



Su-Berri elkarterko hainbat kide Emakumea Pilotari Irekia hasteko prest. HITZA

Egun osoko festa antolatu dute biharko, Dantza Soka Egunean

Anoeta » Mutilen dantza goizean izango da eta neskena, aldiz, arratsaldean; babarrun jatea ere izango dute.

ERREDAKZIOA

Aurten ere Dantza Soka eguna izango da Anoetan. Etzi izango da, larunbata, eta bertan parte hartzeko azken entsegua gaur izango da 18:30ean Edurka pabiloian.

Egitaraua goizean goiz hasiko da, 8:30ean. Dantzariak plazan bilduko dira ordu horretan eta base-rietara abiatuko dira ondoren, 9:00ak aldera. 11:30ean Loatzo



Iazko Dantza Sokaren egunean hartutako irudia. E. EZEIZA

Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute herrian zehar eta 12:00etan mutilen dantza izango da plazan. 13:30ean bazkaltzera jo-

ango dira guztiak; Kuku elkarterean izango da eta babarrun jatea izango da. 17:00etan nesken dantza izango da herriko plazan. Eguna pilotalekuan amaituko dute, bertan izango baita nesken dantza eta gero erromeria trikitalariekin. Talogileak ere izango dira.



Iaz ere ederki pasa zuten umeek Inauteriak ospatzen. E. EZEIZA

Umeen dantza saioarekin hasiko dituzte Inauteriak

Berastegi » Larunbatean ospatuko dute herrian jaia; txarangarekin egingo duten poteoa, txokolatada eta afaria izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Berastegin ere ospatzen dituzte Inauteriak, baina garai batean «Zalduniota, Asteleniota eta Astearteño» ospatzen bazituzten ere, gaur egun aurreko asteburuan eta egun bakarrean egiten dute jaia.

Urteetan, Frankismoa dela-eta, debekatuta egon ziren, eta baita ia desagertuta ere, baina orain urte gutxi batzuk erabaki zuten berriz ere Inauteriak ospatzea.

Horiek horrela, aurtengoan larunbat honetan ospatuko dituzte Inauteriak.

17:00etan hasiko dira, herriko txikian dantza saioarekin, ondoren txokolatada egingo dute, eta 18:30ean poteoa egingo dute txarangaren laguntzarekin. Eguna 21:00etan hasiko den afariarekin amaituko dute.

Legazpiarren aurka galdu du Lakunzak

Villabona » 8-2 galdu zuen areto futboleko taldeak; ondorioz bosgarren postuan geratu da sailkapen orokorrean.

ERREDAKZIOA

Gogorra izan zen larunbateko partida. Villabonako areto futboleko Lakunza taldeak 8-2 galdu zuen Legazpiko taldaren aurka.

Goierriarrak sailkapeneko lehen postuan daude eta billabonatarrek, larunbateko porrotaren ondoren, bosgarren postura jaitzi dira, lehen postuko taldeak lau puntuetara.

Partidako lehen minutuetan Lakunzakoak izan ziren nagusi eta berdinduta ere izan ziren partidako zati luze batean. Ondoren, hala ere, Legazpikoaren golak iritsi ziren bata bestearen atzetik, 8, zehazki. Lakunzaren bi golak Ibon Aranzabek eta Hautsi Izagirrek sartu zituzten.

Asteburu honetan, etxean

Villabonako taldearen hurrengo hitzordua etzi izango da.

Etxean jokatu dute, Olaederri kiroldegian 18:00etan. Partida Gasteizko taldearen kontrako izango da, sailkapeneko bederatzigarren postuan dagoen taldea, hain zuzen.

Laburrak

Ipuin kontalari saioa gaur, Kultur Etxean

IBARRA » Ipuin kontalari saioa izango da gaur Ibarrenko Benito Izagirre kultur etxean 17:30etik aurrera. Saioa Miriam Mendozak zuzenduko du eta 5-8 urteko haurrei zuzendutako izango da. Ibarrenko Udal Liburutegiak antolatu du ipuin kontalari saioa.

Ezohiko osoko bilkura izango da 09:00etan

IBARRA » Ezohiko osoko bilkura izango da gaur 09:00etan Ibarrenko udaletxean. Bertan, Euskara Biziberritzeko Plana Nagusiaren 2009-2012 urteetarako Plan Estrategikoaren onarpena izango dute hizpide, Udalak esandakoaren arabera.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 708 271 edo 638 944 604.



Leitzako Mendibil Mendi Taldeak eta Aurrerak iragan urtean Ipuñiñora antolatutako mendi-irteera. MIKEL ILLARREGI

Mendibil mendi taldeak urteko batzarra egingo du bihar Aurrera elkartean

Leitza » Besteak beste aurtengo plana aztertuko dute batzarran; bazkideei bertara agertzeko deia luzatu diete.

ASIER IMAZ

Leitzako Mendibil mendi taldeak urteko batzarra egingo du bihar Aurrera elkartean 19:30ean. Bazkide guztiak bertara agertzeko deia egin diete.

Batzar orokorraren deialdiaren batera, 2009ko egitaraua ere jakinarazi dute.

«Parte-hartzea beharrezkoa»
Aurrera elkartean, bihar 19:30ean, hainbat gai aztertuko dituzte eta bertan bazkideen parte-hartzea beharrezkoa dela aipatu dute

Mendibil mendi taldeko kideek: «Iaz eginkoa, ongi atera da batzuetan, nahi adina ez besteetan, hala ere, aurten hobe ateratzea nahiko genuke. Dena den, denon esku dago hori; animo beraz».

Gai zerrendari dagokionez, lehen puntuan 2008ko balantzea egingo dute. Ondoren egoera ekonomikoa, aurtengo plana eta blogaren aurkezpena eztabaidatu eta burutuko dituzte.

2009rako egitaraua

Martxoan helduentzat eta gazteentzat ekitaldi bateratua prestatu dute Mendibil mendi taldeak. Ligi-Athereiko Maskarada Taldeak Xiberoan egingo duen Maskarada ikustera joango dira.

Apirilaren 25ean, helduentzat Leitzako mugarrin itzulia prestatu dute. Hobe esanda, itzuliaren le-

hen zatia. Gazteek berriz txirringa irteera egingo dute. Kultur Astearen baitan berriz, *Mendiko eskia Kaukason, 2008* proiektioarekin batera, argazki lehiaketa eta erakusketa antolatuko dituzte.

Ekainerako Urdaibaira asteburu pasa egin nahi dute.

Uztailean eskalada asteburu agertzen da egitarauan.

Abuztuko atsedendiaren ostean, Mendibil mendi taldekoak irailen itzuliko dira. Helduentzat Baztango mendiak ezagutzeko aukera prestatuko dute. Ume eta gazteentzat berriz ibilaldi neurtua antolatuko nahi dute. Hilaren 19an Aurrera Egunaren baitan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte.

Urtea amaitzeko, Nafarroako Kluben Eguna, Ontto biltzea, Tolonoko mendizerra, Eguzkiko muinoa... aipatu dituzte.

Kirolan beste arpegie



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbol jokalaria

Azkeneko idatzi nunen eguerriko «saltsan» giñeuden eta oharzteko Leitzeko ihotek pasa zaizkio! Denboa traidorea da; gehien azkar pasatzea nahi izaten du, beñi motel joatea nahi dun aldi gutxitan bakarrik azkartzen da. Beno, azken astetan pasatako hainbat gauzei buruzko gogoetaxo bat itten saiaturko naiz.

Leitzeko ihotek aipatuz hasi behar. Hainbat launek urteroko gisen ospatu eta bizittu diela esan diete. Gauze jakīne da aparteko xarma duen pesta berezik izaten diela; denatariko mozorroak, karroza ikusgarrik, giro aparta... Ezta izaten lotaraku nahi aīne beta! Dudik gabe gehientsuna gustatzen zaizkiten pestak die. Beraz, aurtene ez naizenez eon espero dot datozen urtetan disfrutatuko dítottela.

Hontaz gain, pasa den eunetako egueldin portaerak aipamen berezi bat mezi do. Izane, alertan eondu da Euskal Herrie, giro illun eta bortitzen menden. Sekuleko hai-zerautsik, eurite latzak edo itsaso haserretuk hainbat kalte eragin due. Kataluña parte hontan haizea izan da ezbehar galantak sortu di-

ttona, heriotzak tarteko. Urtarri-llen 24en haizek hartu zun indarra ez nun aurrez iñoz eta iñon ikusie. Eztot exageratzen: ikeragarrie izan zen. Ez nun pentsatuko bela haizea hain arriskutsue izatea allatuzitteenik. Ondorioz, gure partidue atzeatu in tzuen.

Bestalde, fitxaketan epea itxi berri da eta hiru jokalarri fitxatu dítue (tarten *Jose Mari* famatue, Milan bezelako taldetan jokatue), eta ondorioz hiruk ezin segi. Taldekide bat «zedittue» joan zen eta beste bi fitxa gabe utzi dítue! Hotako baten kasue lotsagarrie da; aurrez deus esan gabe epea itxi ondoren deittu zioan fitxa gabe utzi zuela esanez. Mailla bikañe eman do aldiro eta ezto arazo bate sortu. Zertako? Ba hemengo prentsa manipulatzailek presionatutako agintari ez jakin batzuk bere etorkizune izorratzeko.

Ikusi arte ez siñistekoa da zenbat gauz nazkagarri eta ezkutu dauden kirol profesionalan ingurrun.

Nere kasun, taldetik alde in beharko nula ematten zun azken momenturarte, beñi azkenen Nastiken seitzet denboraldie bukatu arte. Eta nere burue taldeetik kanpo ikustetik azken bi partiduta kombokatue joatera pasa naiz.

Azkenik, eskuz binakako txapelketa aurrea die. Aurreko txapelketan zehar leitzarrak txapeletik hurbil ikusten nittula esan nun eta pasatuko ikusita oingoa leitzarrak txapeletik oso urruti ikusten dítottela esanen dot, oingoa ez ez asmatzea desiraturat! Jeje.

Laburrak

Bihar 19:30ean Kantu-jira Aurrera elkartean

LEITZA • Herriko kantuzale talde batek bultzatuta, Kantu-jira ekitaldi berria ospatuko dute bihar Leitzan. Euskal kantak abestuko dituzte eta zaletasuna duen edonork parte har dezake. Musikariren batek lagunduta bilduko dira Aurrera elkartean 19:30ean. Ekimena irekia denez, nahi duten guztiak joan daitezke hirtzordura.

'Gomorra' filma ikusteko aukera bihar eta igande

LEITZA • Mateo Garrone zine zuzendariaren azken filma, *Gomorra*, ikusteko aukera egongo da bihar eta igande Leitzako Zinean. Bi emanaldietan lehena, biharkoa, 22:30ean hasiko da. Bigarrena, otsailaren 15eko, 19:30ean. *Gomorra* filma mafiaren inguruan kokatua dago eta jadanik ikusle asko hurbildu ditu zinemara.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

SERAPIO MENDIZABAL BENGOTXEA

(Celestina Aldabe-ren alarguna)

Zuhaitz emankor zinen aitona sendoena guzietan, zure itzaletan babestu gera ekaitzik gogorrenetan, hamaika bertso entzunaz hazi gera zure magaletan. Nere malakoak isurtzen dítut maite zenituen lurretan zuhaitz berriak sortu daitezzen Aunibarko belazetan. Agur bero bat aitona eta eskerrik asko benetan zu betirako egongo zera gu guztion bihozketan.

Zure bilobak



ZIZURKILEN
2009ko otsailaren 12an



11°
4°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 10°
HOTZENA 1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Irura.** Kalderoetako entsegua, Kulturunean, 19:00etan. Herriar guztiei parte hartzea animatzen zaie.

Zinema

■ **Tolosa.** *La comedia de la vida* filma emango dute zine-forumean, Leidorren 19:15ean eta 21:45ean.

Erakusketak

■ **Villabona.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko argazki erakusketak Gurea aretoaren sarreran.

Inauteriak

■ **Tolosa.** Zaldunita Bezperako danborradarako entseguak gaur Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 17an Musika Eskolan Bandarekin batera.

■ **Tolosa.** Inauteri kontzertua presatzeko, deialdi berezia egiten zaie Tolosako Musika Bandako kide ohiei, gaurko entsegua, 20:15ean.

■ **Tolosa.** Karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Santillana del Mar-era irteera antolatuta du hilaren 17rako. Izen-ematea, elkartean 12 eurotan. Gosaria Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocio romeriarekin


» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkari adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Hainbat erakusleihak jarri dituzte dagoeneko Inauterietarako apaingarriak; datozen egunetan ere herriko balkoiak kolorez jantziko dituzte tolosarrek. Animatu eta eman kolorea Inauteriei!

Herria ere Inauterietarako prest



Tolosako erakusleihak batzuetan hasi dira Inauterietako apaingarriak jartzen; gero eta gutxiago falta da... N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Astebete. Agendan begiratu eta horixe da Ostegun Gizeneko geratzen dena. Txupinazoak iragarriko du festa eguerdiko 12:00etan eta honenbestez aurreko hilabeteetan eginiko prestaketa guztiek orduntxe emango dute euren fruitua. Mozorroak, karrozak, antzerkiak, dantzak, txarangak, musika doinuak... Guztiak kaleetan zabalduko dira sei egunetan zehar.

Jendeak, herriarrek egiten dute festa hau, dudarik gabe. Baina, herria bera ere apaintzea ezin bestekoa da. Dagoeneko herriko hainbat erakusleihak jantzi dituzte Inauterietako kolorez. Balkoiak



Kolorek bizia ematen diote erakusleihari. Anima zaitezte guztiok! N.L.

ere pixkanaka jantziko dituzte tolosarrek. Aurtengoan krisiaren Inauteriak izango direla dirudi. Ziurrenik koadrila askok eta askok izango dute krisia hizpide euren moztorro, konpartsa eta karrozetan. Baina, zergatik jasan behar dute krisia gure herriko balkoiek? HITZAK ere deialdi berezia egin nahi die bere irakurleei herria kolorez jantzi dezazuen. Guztion artean festa ahaztezinak izan daitezkeen beharrezkoa baita guztion laguntza.

Oraindik astebete duzue etxeko oihala zahar eta koloretsuak hartu eta zuen balkoietan zabaltzeko. Mozorrotu dituztan balkoiak ere. Gora Inauteriak!

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak